

Ingurumen Buletina

- 1. IBB arautzen duen legearen aldaketa***
- 2. Norbait gogoratzen al da klima aldaketaren inguruko COPa zer den?***
- 3. Energiaren erreformarako legea, energia berriztagarriei kaltea da***
- 4. Esako urtegia handitzeko proiektu, Itoizen bide beretik***
- 5. Dokumentala: "Comprar, tirar, comprar"***

1. Ingurumen Baimen Bateratua erregulatzen duen legearen aldaketak instalazio industrialen arduraren administratiboa murriztuko du

Lege proiektu hau emisio industrialen 2010eko Zuzentarauaren trasposizioa da. Erregulazio berri honek enpresei Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) eskatzera, eta aktibitatea aldatu edo handitzerakoan berritzera behartzen zituen 2002ko legea aldatzen du. 6.100 instalazio industrialei eragingo die eta IBB izatera behartuta dauden enpresa potentzialki kutsatzaileei arduraren administratiboak murriztuko dizkie.

Ingurumen Ministerioaren arabera, arau berriaren helburua sinplifikazio administratiboa lortzea eta jarduera industrialen isuriak gutxitzea da, bai airera, bai uretara bai lurrera egiten diren isurietan. Ministerioaren iritziz, eskura dauden hobekuntza teknikoak aplikazioa indartuko da, IBBetan ezartzen diren isuri mugak ezingo baitute eskura dauden hobekuntza teknikoak bidez lortutako isuriak baino handiagoak izan. Ingurumen Ministerioaren esanetan industri sektorearentzat hain beharrezkoa den karga administratiboen murrizketa bilatzen da.

Bi dira 2002ko legean ematen diren aldaketa garrantzitsuenak:

a) Dagoeneko emanak dauden Ingurumen Baimen Bateratu guztiak araudi berrira egokituko behar dira 2014ko urtarrilaren 7a aurretik. Eskuduntza duten ingurumen organoek ofizioz eta prozedimendu sinplifikatu baten bidez egiaztatu beharko dute Ingurumen Baimen Bateratua Zuzentaru berrira egokitzen den.

b) Baimena berritzeko beharra desagertzen da. Baimena eman zenetik 8 urte pasata, eta epemugarekiko 10 hilabeteko aurrerapenarekin, eskuduntza duen organoari titularrak berrikuntza eskaera egin behar zion. Orain eskuduntza duen ingurumen organoa izango da ofizioz eta prozedimendu sinplifikatu baten bidez baimenaren egokitasuna bermatuko duena.

Hitz batean, lege honek IBB eskaerak egiteko derrigortasuna eta zortzi urteren kabuan berritu beharra ezabatzen du. Eskaera hau da ingurumenarekiko industri sektoreak duen "obligazio administratibo" bakarretakoa, legea betetzeaz gain. Zein izango da hurrengo pausua? Ingurumen legediak ingurunea suntsitzeko eta libreki kutsatzeko baimena ematea? Legea aldatzea IBBek emisioak eta hondakinak ez mugatzeko eta gaur egungo legediaren gutxiengoak ez betetzeko? Dena denbora kontua dela dirudi... Baina ELAk ez

dio legediaren aldaketa hauek salatzeari utziko, mundu guztiari kaltetzen baitio ingurumen legeak ahultzea, baita lege honek eragiten dien enpresei ere, beraiek ikusi nahi ez duten arren.

2. Norbait gogoratzen al da klima

aldaketaren inguruko COPa zer den?

COP bilera Nazio Batuen Erakundeko Aldeen Klima Aldaketaren inguruko Konferentzia da. 2009an Kopenhagen ospatu zen COP15etik ELAk atentzio handiz jarraitu ditu NBEren bilera hauek. 2012ko abenduaren 31n Kiotoko Protokoloa iraungitzen denean, 2013ko urtarrilean, indarrean sartu beharko litzatekeen berotegi efektuko gasen inguruko akordio berri bat sinatzeko epemuga zelako Kopenhageko bilera entzutetsuena izan zen.

Kopenhagen ez zuten bi urte lehenago akordio berri bat sinatzeko hartu zuten konpromisoa bete. Momentu hartan herrialde gutxi batzuek, kutsatzaileenak, negoziazioa hurrengo urterarte luzatu behar zela erabaki zuten. COP16a Cancunen egin zen 2010ean. Espero zen bezala, hemendik ere ez zen Kiotoko Protokoloa luzatu behar zuen eta itzaroten genuen akordioa irten. Durbanen, Hego Afrikan, egin zen COP17an ere ez zen ezer onik lortu. Kiotoko Protokoloa luzatzea

erabaki zen oraindik zehaztu ez den akordio loteslea 2020an indarrean sartu arte. Baina luzapen honetatik herrialde batzuk irten egin dira, esaterako Errusia, Japon eta Kanada. Hau ez da inongo aurrerapena izan, guztiz kontrakoa, berotegi efektuko gasen isurketa murrizketetan konpromisoen atzerakada handi bat izan da, batez ere kontuan izanik akordiotik irten diren herrialdeak kutsatzaileenetakoak direla.

Negoiazioak puntu honetan daudela iristen da Dohan (Qatarren) egingo den COP18a. COPetan horrenbeste porrot ikusi eta gero, begi bistakoa da oraingorako ia esperantzarik ez izatea.

ELAn beti izan dugu argi akordio loteslerako eta herrialde guztiek behin betiko sinatzeko ditugun exigentziak:

- Berotegi efektuko gasen %40 murrizketa 2020rako eta %85 2050erako. Eskaera honen helburua planetaren tenperatura 2°Ctik gora ez igotzea da, muga hau zientzialariek jarri dutena da, igoera honetatik pasaz gero ondorioak aurreikusi ezinak eta kontrola ezinak izango baitira.

- Gas emisioak dituzte herrialde guztiak modu loteslean konprometituko dituen akordioa behar dugu, Kiotoren bigarren epe bat izan daiteke (lehen epea 2012ko abenduaren 31n

bukatzen da), edo akordio berri bat.

- Batez ere herrialde industrializatuak dira inplikatu eta ardura hartu behar dutenak, beraiek baitira urteetan zehar atmosfera kutsatzen aritu direnak eta beste herrialde batzuk dira gehienbat klima aldaketaren ondorio latzak jasaten ari direnak.

- Herrialde garatuenak dira eraginak jasaten dituzten eta garapen bidean dauden herrialde hauek klima aldaketara egokitzeko eta garatzen laguntzeko fondoak jarri behar dituztenak.

Klima aldaketa behin betikoz modu justuan geldiarazteko puntu hauek dira garrantzitsuenak. Dohan puntu hauetaz hitz egiten eta negoziatzen jarraituko dute, herrialde bakoitzak emisioak zenbatean murriztu behar dituztenaren inguruan ezadostasunak daude, eta baliabide gutxien dituzten herrialdeek klima aldaketaren eraginei aurre egiteko laguntza ekonomikoa jasotzeko esperantzarik ere ez dago.

Perspektiba honen aurrean, ELAK berriro salatzen du herrialde garatuenek ez dutela inongo intentziorik akordio loteslerik sinatzeko eta klima aldaketaren eraginak gehien jasaten dituzten herrialdeei laguntzea ez dagoela beraien agendan, naiz herrialde garatuenak diren klima aldaketaren

arduradun. Horregatik exijitzen dugu behingoz emisio murrizketak jasoko dituen akordio lotesle bat sinatzea eta beharra duten herrialdeei laguntza ekonomikoa ematea. Beste aldera begiratzen jarraitu arren, herrialde garatuenak baitira beroketa globalaren erantzuleak.

3. Energiaren erreformarako legea, energia berriztagarriei kaltea da

Energiaren iraunkortasunerako neurri fiskalen lege proiektua irailaren 28an argitaratu zen estatuko aldizkari ofizialean. Espainiar gobernuak lege honekin energiaren erabilera eraginkorra eta ingurumenaren babesa zerga sistemarekin armonizatu nahi omen ditu. Baina honen atzean zerga igoera arrunt bat besterik ez dago, energia berriztagarriak kaltetuta irteten duten zerga igoera soil bat.

Legeak hiru zerga berri ezarriko ditu: energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, energia nuklearra ekoizterakoan sortzen diren hondakin erradiaktibo eta erregai nuklearren ekoizpenaren gaineko zerga, eta hondakin eta erregai agortuak instalazio zentralizatueta biltegitatzearen gaineko zerga (1964ko lege batek zehazten du, behin biltegitatuta

daudenean, hondakin erradiaktiboak Estatuaren titularitatera pasatzen direla). Bestalde, energia hidroelektrikoa sortzeko ur kontinentalen erabilerari kanon bat ezarriko zaio. Eta azkenik gas naturala eta ikatzarentzat ezarritako zerga tipoak aldatu egingo dira; eta energia elektrikoa sortzeko, elektrizitatearen kogeneraziorako eta beroaren aprobetxamendurako produktu energetikoentzat aurreikusiriko salbuespenak kenduko dira.

Denok dakigu hidrokarburoei ezarritako zergak Estatuarentzat diru sarrera esanguratsuak direla, baina hau onartzeaz honez gain gobernuak dio ingurumenaren babeserako tresna baliagarria direla. Hidrokarburoei energia fosil izateagatik eta ingurumen eragin kaltegarriak eragiteagatik aplikatzen zaie zerga. Hemendik aurrera ikatzari ere zerga tipoa igoko zaio. Eta orain arte ez bezala, fueloleoari eta energia sortzeko erabiltzen diren gasoleoei ere zerga tipo espezifiko bat ezarriko zaie.

Baina helburuak onak diruditen arren, intentzioak beste batzuk dira. Zerga mota hauek ez baitute energia kontsumoaren beherakadarik erakutsi indarrean egon direnean eta jasotzen den dirua ez baita ingurumenaren babesera bideratzen.

Osasunerako zentimoa bezalako zergak dira adibide garbiena.

Bestalde aipatzekoa da ur kontinentalen erabilerari dagokionez, administrazio ezberdinek mekanismo egokiak ezarri beharko dituztela uraren kudeaketa eta ingurumen kosteak azken kontsumitzaileei eragiteko. Horretarako ondorengo obligazioak ezartzen dituzte: domeinu publikoaren erabileragatiko kanona, domeinu publiko hidraulikora eginiko isurketen gaineko kanona, eta Estatuak eginiko obretatik ateratako onura partikularren gaineko kanona. Gaur egun espainiar estatuko ur kontinentalen kalitate eskasak hauek babestu beharra erakusten du, gizartearentzat behar beharrezkoa den ondare bat babesteko. Horregatik domeinu hidrauliko publikoa babesteko politikak behar direla azpimarratzen du lege proiektuak, horretarako ondare hau energia elektrikoa ekoizteko erabiltzen dutenek kanon bat ordaindu beharko dute.

Erreforma hau ikusirik ELAk lege proiektu hau zerga igoera bat besterik ez dela ondorioztatzen du, ingurumenaren babeserako inongo printzipiorik gabe aplikatuko dena, ez baititu energia berriztagarriak lehentasun gisa jartzen. Zerga hauetatik aterako den dirua ez da

ingurumenaren babesean inbertituko, nahiz eta zerga jartzeko arrazoietako bat ingurumenaren babesa izan. Guztiz kontrakoa, energia hidroelektrikoa sortzeko erabiltzen den urari kanona jartzea energia berriztagarriak kaltetzea da.

ELAk salatzen du zerga guzti hauek kontsumitzaileok ordainduko ditugula, enpresa elektrikek ez dute ordainduko, prezioa igoko digute kontsumitzaileoi eta kitto. Espainiar gobernuari bost axola zaizkio energia berriztagarriak eta ingurumena, lege proiektu honen helburua ahalik eta diru sarrera gehien izatea delako.

4. Esako urtegia handitzeko proiektu, Itoizen bide beretik

Ez da berria Esako urtegia handitzeko proiektua, berria ez den bezala honen aurka Nafarroako eta Aragoiko inguruko herriek duten borroka. 1960an urtegia eraiki zenean etxe asko geratu ziren urpean. Honetaz gain, ur azpian geratu ez ziren herriek ere kalte izugarriak izan zituzten eta hustu egin ziren. Urtegia handitzeko hasierako proiektua urtegia hirukoiztea zen, kasu honetan herri bat geratuko litzateke urpean. Beranduago, eta herritarren presioari esker, proiektu hori baztertu egin zen. Hala ere handitzeko

asmoak aurrera darrai, baina baita asmo hauen aurkako borroka ere.

Mugaren bi aldeetako herri hauek borroka elkartzen ditu. Urtegia handitzearekin lur ugari urpean geratuko lirateke, esaterako, Artiedako (Aragoi) lurak. Zangotza ordea, obren segurtasun arazoan mehatxua pairatzen duenetako bat da, urak aurretik eraman baitezake. Herritarren asmoa bakarra da: Esako urtegiak inongo handitzerik ez izatea, eta arrazoi ugari dituzte.

Herritarrentzat lehentasuna berain lurak mantentzea da, berain bizimodua baita. Ez dituzte beraien herriak utzi nahi, bertan bizi nahi dute. Ebroko Ur konfederazioa da proiektu honen bultzatzailea eta honen arabera urtegi handitzearen helburua Zaragozara eta Bardeetara ura eramatea da. Ez daude honekin ados herritarrak, benetako arrazoa beste bat dela diote. Benetako interesa ura negozioa dagoen lekuetara eramatea dela eta Konfederazioa nekazaritza esplotazio handien eta portlanaren agindupean ari dela salatzen dute.

Proiektua epaitegietara ere eraman dute, baina badirudi bide honek baino zeresan handiagoa ematen dutela urtegiaren segurtasun ezak, gero eta ageriagoak baitira. Urtegia handitzeko lanak hasi zirenetik lur

jauziak ugariak izan dira presatik behera geratzen diren lurretan. Hau ikusita Zangotzarrak kezkatuta daude edozein ezbeharren ondorioz urak herria harrapatu baitezake. Are larriagoa da Zangotzako egoera, Itoizko urtegian gerta daitekeenak ere eragiten baitio herriari.

Obraren arduradunek arriskurik ez dagoela diote Baina geologoak ez daude ados, obraren arriskuari presa berria egiten ari diren eremua egonkorra ez dela gehitu behar zaio, lur irristaketak daudela eta honek izugarriko arriskua sortzen duela. Hau bera esaten zen Itoizko urtegia eraiki zenean eta denborak arrazoia eman die: lurrikarak, lur jauziak,... hala ere agintariak ez dute atzera egin.

Azpiegiturak eraikitzeke erabakia ez da herritarren beharren arabera egiten, negozioaren menpe hartzen diren erabakiak dira. Hau berriro ere ikusgai geratu da Esako

urtegiarekin, aurretik Itoizen gertatu zen bezala, edo beste hainbat azpiegiturekin gertatzen den bezala: AHT, erabiltzen ez diren errepideak, portuak, aireportuak,... eta dena diru publikoarekin eta ondorengo urteetarako gizartearen gehiengoak miserian utzita.

5. Gomendatutako dokumentala:

“Comprar ,tirar, comprar”

Hurrengo asteak kontsumo handikoak izaten dira askorentzat. Aurten sarritan aritu gara kontsumoaren inguruan eta dagoeneko kontsumo arduratsua eta jasangarria zer den badakigu. Oraingoan zerbait erosterakoan kontuan izan beharreko beste kontzeptu batekin gatoz: obsolezentzia programatua. Hona hemen dokumental bat zerbait erosten dugunean kontuan izateko.

Ikusteko klikatu [hemen](#).